



ZIGOITIKO UDALERRIKO
ABELTZAINZA USTIAPENEN
ERREGISTROAREN ARAUDIA

REGLAMENTO REGULADOR DEL
REGISTRO DE EXPLOTACIONES
GANADERAS DEL MUNICIPIO DE
ZIGOITIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Abeltzaintza ustiapenak erregistratzeko beharra honakoak ekarri zuen: Kontseiluaren azaroaren 27ko 92/102/CEE zuzentarauak. Zuzentarau hori animalien identifikazioarekin eta erregistroarekin lotuta dago, eta otsailaren 9ko 205/1996 Errege-dekretuaren bidez txertatu zen espainiar ordenamendu juridikoan, eta, horren bidez, behien, txerrien, ardien eta ahuntzen ustiapenen zerrenda eguneratuak, oinarrizko datuak jasota, izateko betebeharra ezarri zen.

Ondorioz, apirilaren 24ko 8/2003 Legeak, Animalien Osasunari buruzkoak, bere 38.1 artikuluan, agintzen du animalien ustiapenak erregistratuta egon behar direla egoitza duten erkidego autonomoan, eta beren oinarrizko datuak ganadu-ustiapenen erregistro nazional batean (REGA) sartu behar direla. Erregistro hori martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuaren bidez araututa dago.

Horrekin lotuta, Zigoitiko Udalak, udalaren jabetzako mendien lursailen aprobetxamendua arautzeko ordenantzaz, 8. artikuluan, ganadu ustiapenen erregistro bat sortzea arautu zuen, bertan, bazkalekuen edo bazkarako erabiltzen diren lursailen aprobetxamenduen onuradunak diren norbanakoen edo erakundeen datuak jasota egongo direlarik. Erregistro horretan izena ematea ezinbesteko baldintza da mota horietako aprobetxamenduak erabili ahal izateko.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La necesidad de registrar las explotaciones ganaderas trajo causa de la Directiva 92/102/CEE del Consejo, de 27 de noviembre, relativa a la identificación y al registro de animales cuya incorporación al ordenamiento jurídico español se realizó mediante el RD 205/1996, de 9 de febrero, por el que se estableció la obligación de disponer de listas actualizadas de las explotaciones de especies bovina, porcina, ovina y caprina donde se contengan sus datos básicos.

Consecuentemente, la Ley 8/2003, de 24 de abril, de Sanidad Animal estableció en su art. 38.1 que las explotaciones de animales debían estar registradas en la comunidad autónoma en que radiquen y los datos básicos serían incluidos en un registro nacional de explotaciones ganaderas (REGA) cuya regulación se estableció en el RD 479/2004, de 26 de marzo.

En esta misma línea, el Ayuntamiento de Zigoitia en su ordenanza reguladora de los aprovechamientos de los terrenos de montes de titularidad municipal procedió a regular en su art. 8 la creación de un registro de explotaciones ganaderas en el que consten los datos de las personas o entidades beneficiarias de aprovechamientos de pastos o roturos destinados a pastos, siendo esta inscripción requisito para poder disfrutar de ambos tipos de aprovechamientos.



1. artikulua. Araudiaren helburua eta aplikazio-eremua.

Araudi honen helburua da Zigoitiko ganadu ustiapenen udal erregistroa arautzea. Bertan sartuko dira bazkaleku estentsiboen edo bazkarako helburua duten lursailen aprobetxamenduen onuradunak diren pertsona edo erakunde guztiak, lursail horiek Zigoitiko Udalaren jabetzako mendi-lurretakoak badira.

Udal erregistro hau Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren ganadu ustiapenen erregistrotik independentea izango da.

Araudi hau aplikatu ahal izango den geografia-eremua Zigoitiko udalerrria izango da.

2. artikulua. Zigoitiko udal erregistroan inskribatu daitekeen ganadu ustiapen motaren definizioa.

Ganadu ustiapentzat joko da, udal erregistroan izena emateko, ondorengo baldintzak betetzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa:

-Arabako Foru Aldundiaren ganadu ustiapenen erregistroan izena eman dutela egiaztatzen dutenak.

-Zigoitiko udalerrian, edo, kasua kasu, Zigoitiarekin mugakide diren udalerrietan, ganadurako nahikoa lur-eremu eta bizileku, teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik egokiak, dituenak.

-Zigoitiko Udalaren jabetzakoak diren mendietako bazkaleku estentsiboen edo bazkarako erabiltzen diren lursailen aprobetxamenduen onuradun izan nahi dutenak.

Art. 1. Objeto y ámbito de aplicación.

El objeto de este reglamento es regular el registro municipal de explotaciones ganaderas de Zigoitia, en el que se incluirán todas las personas o entidades beneficiarias de aprovechamientos de pasto extensivo o roturos destinados a pasto en terrenos de monte de titularidad del Ayuntamiento de Zigoitia.

Este registro municipal será independiente del registro de explotaciones ganaderas de la Diputación Foral de Álava dependiente de su Dpto. de Agricultura.

El ámbito geográfico de aplicación del presente reglamento será el municipio de Zigoitia.

Art. 2. Definición de explotación ganadera inscribible en el registro municipal de Zigoitia.

Se considerará explotación ganadera, a los efectos del registro municipal, a las personas físicas o jurídicas que reúnan las condiciones siguientes:

-Acrediten estar inscritas en el registro de explotaciones ganaderas de Diputación Foral de Álava.

-Posean terreno y alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para el ganado en el municipio de Zigoitia o, en su caso, en los municipios colindantes a Zigoitia.

-Quieran ser beneficiarias de aprovechamientos de pasto extensivo o de roturos con destino a pastos en terrenos de monte de titularidad del Ayuntamiento de Zigoitia.



3. artikulua. Kudeaketaz arduratuko den administrazio-unitatea.

Zigoitiko Udaleko Idazkaritza izango da ganadu-ustiapenen udal erregistroaren arduraduna.

4. artikulua. Erregistroan izena ematea.

Zigoitiko Udalaren jabetzako mendi-lursailetakoko bazkalekuen edo bazkarako erabiltzen diren lursailen aprobetxamenduaren onuradunak izan nahi duten pertsona edo erakundeek nahi eta nahiez eman beharko dute izena aipatutako erregistroan. Horretarako, izena emateko eskaeraren inprimaki normalizatuarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Zigoitiko Udalaren bulegoetan:

-Arabako Foru Aldundiaren ganadu ustiapenen erregistroan izena eman izanaren ziurtagiria.

-NANaren fotokopia, pertsona fisikoaren kasuan, edo eratzes-ekritura, pertsona juridikoaren kasuan.

-Zigoitiko udalerrian, edo, bere kasua hori bada, mugakide dituen herrietan, ganadurako lursail eta bizileku kopuru nahikoa eta egokia izatearen egiaztagiri dokumentala (I. eranskina), lurren eta lursailen zerrenda batekin (kokapena eta edukitze-erregimena zehaztuta), eta erakin eta instalazioen beste zerrenda batekin (azalera, funtzioa eta edukitze-erregimena) zehaztuta. Denak ustiapenarekin lotuta egon behar dira.

5. artikulua. Izen ematearen ebazpena.

Aurreko artikuluan zehaztutako dokumentazioa entregatu eta egiaztatu ondoren, eskaera egiten denetik 30

Art. 3. Unidad administrativa responsable de su gestión.

El registro municipal de explotaciones ganaderas dependerá de la Secretaría del Ayuntamiento de Zigoitia.

Art. 4. Inscripción en el registro.

Las personas o entidades que pretendan ser beneficiarias de aprovechamientos de pastos o roturos destinados a pastos en terrenos de monte de titularidad del Ayuntamiento de Zigoitia tendrán que inscribirse necesariamente en dicho registro. Para ello, junto al impreso normalizado de solicitud de inscripción tendrán que presentar en las dependencias del Ayuntamiento de Zigoitia la documentación siguiente:

-Certificado de inscripción en el registro de explotaciones ganaderas de la Diputación Foral de Álava.

-Fotocopia del DNI, en caso de persona física, o escritura de constitución, en caso de persona jurídica.

-Acreditación documental (anexo I) de la posesión de terreno y alojamiento suficiente y adecuado para ganado en el municipio de Zigoitia o, en su caso, en los municipios colindantes mediante una relación de tierras y parcelas (con indicación de su ubicación y régimen de tenencia) así como de construcciones e instalaciones (con indicación de su superficie, función y régimen de tenencia) todas ellas adscritas a la explotación.

Art. 5. Resolución de inscripción.

Entregada y comprobada la documentación detallada en el artículo precedente, en el plazo de 30 días



eguneko epean, ganadu ustiapenen udal erregistroan inskribatzea ebatziko du alkatetzak, eta pertsona edo erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio erregistroan alta eman duela, eta baita bertan duen inskripzio-zenbakia ere.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak ekarritako dokumentazioa zuzendu beharra badago, zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horretarako, errekerimendua jasotzen duenetik 15 egun baliouduneko epea emango zaio. Epe horretan, pertsona edo erakunde eskatzaileak ez badu zuzenketarik egiten, inskripzioa bertan behera utziko da.

6. artikulua. Izena emandako ganadu ustiapenen baldintza fisiko edo juridikoetan aldaketak.

Udal erregistroan izena emandako ganadu ustiapenek Zigoitiko Udalarari jakinarazi beharko diote, urteko aprobetxamenduetarako eskabideak aurkezteko epearen barruan, baldintza fisikoetan gertatutako edozein aldaketa (Ustiapenaren barruan dagoen abelburu kopurua, ganadu mota, lurra, lursailak, eraikinak edo instalazioak), eta aldaketa horiek egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute horretarako.

Era berean, baldintza juridikoetan gertatutako aldaketak (titulartasun aldaketak, pertsona juridikoen kasuan bazkideen altak eta bajak, etab...) jakinarazi beharko dituzte, aldaketa hori gertatu den egunetik hasi eta hilabeteko epean. Aldaketei dagozkien egiaztagirik aurkeztu beharko dituzte.

desde la solicitud, la Alcaldía resolverá la inscripción en el registro municipal de explotaciones ganaderas y notificará a la persona o entidad solicitante la situación de alta en el mismo así como el número de inscripción

En el supuesto de que la documentación aportada por la persona o entidad solicitante tuviese que ser subsanada, se le requerirá la subsanación de la misma otorgando para ello un plazo de 15 días hábiles desde la recepción de dicho requerimiento. Si en dicho plazo la persona o entidad solicitante no hubiese procedido a la subsanación, se le tendrá por desistida de la inscripción.

Art. 6. Cambios en las condiciones físicas o jurídicas de las explotaciones ganaderas inscritas.

Las explotaciones ganaderas inscritas en el registro municipal deberán comunicar al Ayuntamiento de Zigoitia dentro del plazo de presentación de solicitudes de aprovechamientos anuales cualquier cambio sobrevenido en las condiciones físicas (número de cabezas de ganado, tipo de ganado, tierras, parcelas, construcciones o instalaciones adscritas a la explotación), debiendo aportar la documentación justificativa.

Asimismo, deberán comunicar los cambios en las condiciones jurídicas (cambios de titularidad, alta o baja de socios o socias en caso de personas jurídicas, etc...) dentro del mes siguiente al de la fecha en que dicha modificación se haya producido, debiendo aportar la documentación justificativa correspondiente.



7. artikulua. Inskripzioaren indarraldia.

Ganadu ustiapenaren inskripzioa indarrean egongo da, ez bada, udal erregistroan, inskripzioaren titularra den pertsonak edo erakundeak hala eskatuta, edo ofizioz, ezeztatzen.

8. artikulua. Udal erregistroko inskripzioa ezeztatzea.

Izena emandako ganadu ustiapenen pertsona edo erakunde titularrek udal erregistroko izenematea ezeztatzea eskatu dezakete, edozein unetan, ondorengo arrazoiengatik:

-Pertsona fisikoaren kasuan: erretiroa, desgaitasuna edo heriotza.

-Pertsona juridikoaren kasuan: erakundea desagitea, edo bestelako arrazoiak.

Ezeztatzea eskatzeko, eskabide-inprimaki normalizatua aurkeztu beharko dute, honako dokumentazioarekin batera:

-Pertsona fisikoaren kasuan: Gizarte Segurantzak emandako dokumentazioa, ustiapenaren titularren erretiro-pentsiorako edo desgaitasun-pentsiorako eskubidea aitortzen duena. Zigoititik kanpora gertatutako heriotzaren kasuan, heriotza-ziurtagiria.

-Pertsona juridikoaren kasuan: desagitea egiaztatzen duen dokumentazioa (eskritura publikoa, Merkataritza-erregistroaren ziurtagiria, Arabako Foru Aldundiaren Ganadu Ustiapenerako Erregistroarena, etab...).

Alkatetzak ebatziko du ganadu ustiapenen udal erregistroko inskripzioaren ezeztapena, eta ezeztapenaren berri emango dio eskatu duen pertsona edo erakundeari.

Art. 7. Vigencia de la inscripción.

La explotación ganadera permanecerá inscrita mientras no se produzca la cancelación de la misma en el registro municipal, bien a solicitud de la persona o entidad titular de la misma bien de oficio.

Art. 8. Cancelación de la inscripción en el registro municipal.

Las personas o entidades titulares de explotaciones ganaderas inscritas podrán solicitar la cancelación de su inscripción en el registro municipal en cualquier momento por las causas siguientes:

-En caso de persona física: por jubilación, incapacidad o fallecimiento.

-En caso de persona jurídica: por disolución de la entidad u otras causas.

Para solicitar la cancelación tendrán que presentar impreso normalizado de solicitud acompañado de la documentación siguiente:

-En caso de persona física: documentación expedida por la Seguridad Social de reconocimiento del derecho a pensión de jubilación o de incapacidad de la persona titular de la explotación. Certificado de defunción en caso de fallecimiento fuera de Zigoitia.

-En caso de persona jurídica: documentación que acredite la disolución (escritura pública, certificación del Registro Mercantil, del Registro de Explotaciones Ganaderas de Diputación Foral de Álava, etc...).

La Alcaldía resolverá la cancelación de la inscripción en el registro municipal de explotaciones ganaderas y notificará a la persona o entidad solicitante la misma.



Udal erregistroko ofiziozko ezetzapenak ondorengo arrazoiak biltzen direnean gauzatuko dira:

- Ustiapena desagertzea.
- Izena emateko beharrezkoak diren baldintzak ez betetzea.
- Epai judicial irmoak aginduta, ustiapena desegitea edo bere jarduera etetea.

Azkeneko kasuan salbu, inskribatutako ustiapenaren pertsona edo erakunde titularrari audientzia emango zaio, egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ditzan, dagokion jakinarazpena jaso ondorengo 15 eguneko epean, eta ez badu alegaziorik aurkezten, baja emango zaio.

Ganadu ustiapenak bere jarduna urtebeteko epealdian baino luzeagoan eteten badu, ustiapena ez aktibotzat joko da. Ez aktibotzat jo, eta 2 urteko epean ganadu ustiapenak ez badu bere jarduera berriro ere martxan jartzen (hala egitea eragozten duen ezinbesteko arrazoiaren bat tartean ez badago) ofizioz baja emango zaio udal erregistroan.

9. artikulua. Zigoitiko Udalaren eskubideak. inspektzorako

Zigoitiko Udalak, uneoro, aurkeztutako adierazpenen eta datuen zehaztasuna eta egiazkotasuna kontrolatzeko eskubidea du, inspektzioak eginez. Inspektzio horiei, ganadu ustiapenaren titularrak, ezingo die inolako trabarik edo eragozpenik jarri.

Las cancelaciones de oficio en el registro municipal se producirán cuando concurren las causas siguientes:

- Desaparición de la explotación.
- Dejar de reunir los requisitos necesarios para su inscripción
- Por disolución o suspensión de actividades decretada por sentencia judicial firme.

Salvo en este último supuesto, se dará audiencia a la persona o entidad titular de la explotación inscrita para formular cuantas alegaciones estime oportuno, en el plazo de 15 días desde la recepción de la notificación correspondiente, procediendo a su baja en el caso de que no presente alegación alguna.

En los casos en que la explotación ganadera interrumpa su actividad durante un período de 1 año, se considerará que la misma está inactiva. Si transcurriesen más de 2 años desde el paso a la situación de inactividad sin que la explotación ganadera reanudase nuevamente su actividad (salvo que concorra una causa de fuerza mayor que lo impida) se procederá a la baja de oficio de la misma en el registro municipal.

Art. 9. Facultades inspectoras del Ayuntamiento de Zigoitia.

El Ayuntamiento de Zigoitia se reserva el derecho de controlar en todo momento la exactitud y veracidad de las declaraciones y datos presentados mediante inspecciones a las que no se podrán poner impedimentos u obstáculos por la persona o entidad titular de la explotación ganadera correspondiente.



10. artikulua. Udal erregistroan sartutako datuen publikitatea.

Ganadu ustiapenen udal erregistroan dauden izaera pertsonaleko datuek "ganadu ustiapenen erregistroa" izeneko fitxategi bat osatzen dute, eta fitxategi hori Datuen Babeserako Euskal Agentzian inskribatuta eta Datuen Babeserako Espainiar Agentziaren erregistroan txertatuta dago.

Datu hauek publikoak izango dira, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko indarrean dagoen legerian aurreikusten diren mugekin.

11. artikulua. Udal erregistroan sartutako datuen egiaztagiria.

Erregistro-datuekin lotuta emandako ziurtagiriek egiaztagiri gisa balioko dute, izena emandako ganadu ustiapen izaera duela egiaztatzeko.

12. artikulua. Inskribatutako ganadu ustiapenen eskubideak.

Ondorengoak izango dira:

1. Zigoitiko Udalaren jabetzako mendietako lursailetakoz bazkaleku estentsiboen eta bazkarako erabiltzen diren lursailen aprobetxamenduen onuradun izatea.

2. Zigoitiko Udalak etorkizunean martxan jarri ditzakeen udal-politiketan edo ekimenetan parte hartzea.

13. artikulua. Izena emandako ganadu-esplotazioen betebeharrak.

Araudi honetako 6. eta 8. artikuluetan jasotakoak.

Art. 10. Publicidad de los datos incluidos en el registro municipal.

Los datos de carácter personal contenidos en el registro municipal de explotaciones ganaderas forman parte de un fichero denominado "registro de explotaciones ganaderas" inscrito en la Agencia Vasca de Protección de Datos e integrado en el registro de la Agencia Española de Protección de Datos.

Estos datos serán públicos, con las restricciones que en todo momento prevea la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

Art. 11. Certificación de los datos incluidos en el registro municipal.

Las certificaciones expedidas sobre los datos registrales servirán como documento acreditativo de la condición de explotación ganadera inscrita a todos los efectos.

Art. 12. Derechos de las explotaciones ganaderas inscritas.

Serán los siguientes:

1. Resultar beneficiaria de los aprovechamientos de pastos extensivo y de roturos destinados a pastos en terrenos de monte de titularidad del Ayuntamiento de Zigoitia.

2. Tomar parte en iniciativas o disfrutar de políticas de carácter municipal que el Ayuntamiento de Zigoitia pueda poner en marcha en el futuro.

Art. 13. Deberes de las explotaciones ganaderas inscritas.

Los recogidos en los arts. 6 y 8 del presente reglamento.



14. artikulua. Araudi hau interpretatzeko eskumena.

Zigoitiko Udalak du araudi hau interpretatzeko eta bere aplikazioak sor ditzakeen zalantzak argitzeko eskumena. Araudi honetan berariaz arautu gabeko kasu guztietan, indarrean dagoen aplikatu beharreko legeriak agindutakoa beteko da.

Art. 14. Prerrogativa de interpretación del presente reglamento.

El Ayuntamiento de Zigoitia tiene la prerrogativa de interpretar el presente reglamento y las dudas que pudieran surgir en su aplicación. En todo aquello no expresamente regulado en el presente reglamento, se estará a lo dispuesto en la normativa vigente que le sea de aplicación.

Ondategin, 2017ko uztailaren 31n./ En Ondategi, a 31 de julio de 2017.

ALKATEA/EL ALCALDE,

Izp./ Fdo.: Mikel Las Heras Mtz. de Lopera.

DILIGENCIA.- Se extiende para hacer constar que el Reglamento Regulador del Registro de Explotaciones Ganaderas del municipio de Zigoitia fue aprobado por esta Corporación en Sesión celebrada el día 17 de mayo de 2017, y publicado en el BOTHA (nº 60 de fecha 29 de mayo de 2017) y en el tablón de Anuncios del Ayuntamiento para su exposición al público durante el plazo de 30 días no habiéndose presentado reclamación alguna. Publicado íntegramente en el BOTHA nº 85, de fecha 26 de julio de 2017.

En Ondategi, a 31 de julio de 2017.

Vº Bº
EL ALCALDE

LA SECRETARIA

Fdo.: Mikel Las Heras Mtz. de Lopera.

Fdo.: Ziortza Guinea Gutierrez.